



# LANEAN ERE EUSKARAZ EGITEAREN GARRANTZIA

Eskualdean arlo ezberdinetako 80 saltoki nahiz enpresatan banatu du Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiria 7

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2008-07-13**

VIURTEA 1.485.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Euskal Herriko txoko desberdinetako jokalariek ari dira parte hartzen Txapelketan. E. EZBIZA

## 300 BEGI JOMUGAN ASMATU NAHIRIK

**TOLOSA** Herenegun hasi zen eta gaur amaituko da Euskal Herriko I. Dardo Txapelketa Beotibar pilotalekuan 6

### Amezketan Pilota Konfederazioko finalean gailendu da

**PILOTA** Hiru kategoriatik bitan lortu zuten txapela atzo Amezketan jokaturiko finalean 4



Euskal Herriko Herri Arteko jubenilen finala, atzo, Amezketan. N. GARZIA

### Nagore Laffageren erailketa salatzeko konzentrazioak

**TOLOSA - LEITZA** Herenegun egin zituzten Bilgune Feministak deituta 4



# hitza

elastiko berriak salgai  
haur, gazte eta helduentzat



Harpidedunentzat  
**%25**  
merkeago

hitza®



Tolosako  
HITZAren  
bulegoan  
eskuragarri.

elastikoarekin  
**poltsa opari!**



» **Uzturretik**

Iratxe Etxebeste

Lagun batzuen etxean afaldu nuen. Ordu txikiekin batera hartu nuen etxerako bidea. Berriketari, berandutu egin zitzaigun.

## Ezin da ahaztu

Pixka batera telefonoa. Halako ordutan deiak ez dira parte onekoak izaten. Eta laguna. Laguna esaten guardia zibilek kalea inguratu zutela, ea nor atxilotuko zuten.

«Martxelo bizi den etxean», esaten zuen. «Martxelo bizi den etxean daude». Eta Martxelo atxilotzea ezinezkoa balitz bezala, beste aukeren bila hasi ginen. Baina alferrik.

Akreditazioa hartu eta hara itzuli nintzen. Kazetariaren jakin beharra, zer bestela. Berririk gabe, berriro etxera. Urduri. Azkenean, irratiko ahots ezagun batek zabaldu arazi zizkidan begiak.

Eguna argitu gabe oraindik. Argitzerakoan, ilun. Gordin. Ezin da ahaztu. Nola eraman zituzten. Jo. Torturatu. *Egunkaria* itxi. Babesik ez eta hil egin zuten. Gezurrarekin.

Hurrenkera horretan gogoratan ditut hitzok 2003ko otsailaren 20az akordatzen naizenean. Argazki sekuentzia amaigabea.

Bost urte badira ordutik, eta gauzak ez dira asko aldatu. Batzuentzat ez. Dozena bat lagun inputatuk atzera zenbatzen dute. Laster helduko dela epaiketa eguna.

HITZA honek bezala, bost bete ditu aurretik *Berria*-k. Eta guk, lagun artean ospatu ditugu urtebetetze biak.

Bereziki gogoangarria ekainaren 21a. Ehunka lagun Kursaalaren

ederra ekitaldia. Silveirak ere bota zuen. Ezin da ahaztu.

Gero, epaituko dituztenak ohol-tzan gora. Orduan bai, babesikaragarria. Halako txaloaldi luzerik ez dut sekula entzun. Hunkitu egin nintzen, aitortzen dut.

Lehenengoz, *Uzturretik* idazten dut gaur. Maite dudan txoko honetatik. Lehena beti da berezi. Ezin zuen bestela izan. Ezin zen ahaztu. *Egunkaria* beti izango dut gogoan. Ez dakit nola azaldu. *Egunero* hazten ikusi nuen. Eta niri, hark eman zidan eskarmen-tua.

## A Argazki zaharra



## Donibane-Zuhaitzen jokia gogoan

**TOLOSA** © Zerkasiaren inguruan presa jartzeko proiektua dago, bertan ekintza desberdinak egin ahal izateko. Orain urte gutxi egon zen inguru horretan saiakera bat, bertan udan pedal ontzietan ibiltzeko, baina gutxi iraun zuen. Dena dela, Oria ibaiko uretan bainua hartzearena ez da ez gaur egungo kontua. Garai batean, ordea, bainatzeaz gain, Donibane-Zuhaitzak edo Kukafien jokoan aritzen ziren, eta jende ugari gerturatzeko ikustera. 1935 eta 1936 urteetako ekaineko argazkiak dira. Labainkor egoten zen enbor horren muturrean zapiak jartzen zuten eta hau hartzea lortzen zuenak irabazten zuten; askok, noski, uretan amaitzen zuten. Oria ibaian, Zerkasiaren inguru horrek ez zuen, baina, sakonera handia, eta orduan Tolosarrekin eta ingurukoek beste leku batzuk aukeratzeko zitezuten bainatzeko. Askok eta askok San Luzia auzoko Iturralde baserriaren eta Guadalupe lantegiaren ondoan dagoen presara joaten ziren udako egun beroetan. /JESUS ELOSEGUI 1907-1979/ ARANZADI FOTOGALERIA

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra

**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

**E Eztabaida** info

**Etorकिन inguruan lege berri eta zorrotzago bat onartu dute Europar. Zer iritzi duzu honen inguruan?**

■ **Mikel.** «Ez nago batere ados onartu duten lege honekin. Zer nahi dutela horrela lortu? Lehen nahikoa zailtasun dituzte etorkinek bizitzan aurrera egiteko, eta traba gehiago jartzen. Gainera, zergatik debekatu behar zaio pertsona bati lurralde batean zein bestean sartzea? Europarrok munduko edozein lurraldetan sartzeko aukera dugu, zer gara besteak baino gehiago ala?»

■ **Miren.** «Horrekin ados dagoena arrazista hutsa da. Hirugarren Mundua izenez ezagutzen dugunari Europarok esplotatu eta dena kendu dio. Beraien jaiolakuan bizi iraun ezin dutelako nahi dute etorri Europara eta beraien kontura aberastu eta gero zaborra bezala tratatzen zaie. Bizirauteko leku bat bilatzen saiatzen direlako atxilotu nahi dituzte eta honekin arazoa konponduko dutel uste al dute?»

**B Blogteka** info

**Mugi ezak/n gorputza Bandaren doinuekin!**

Urteko kontzertu dantzarriena iritsi zaio Musika Bandari. Gau Giro programazioaren barruan datorren uztailaren 18an, ostirala, gaueko 22:30ean eskainiko duena. Leku berri batean gainera: Lopez-Mendizabal ibiltokian, ohiko Alde Zaharreko eszenatokietatik urrutit, harresiaren kanpoaldean, herritako auzo berrietara zabalduz bere musika eskaintza.

Baina, esan bezala, ibiltokia dantza-tokia bilakatuko da gau magiko horretan, eta bertako terrazetan tragoxka hartuz daudenek bere barruan gordeta duten dantzaria kanporatzeko aukera izango dute. Frank Sinatra, Duo Dinamico, Abba, Tom Jones eta beste artista mundial biltzuen doinu ezagunak entzuteko eta dantzatzeko parada izango dute. Rock&Rolla, mexikarrak, rumba, cha-cha-cha, fandango eta arin arina... izango dira entzungai eta dantzagai. Mugi bizkarrizurra eta txonkatila horiek!

**Tolosako Musika Banda**

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/banda/>

**AHT elkartasuna**

Pasa den ekainaren 12an Aranburu Jauregian AHTri buruzko erakusketa ireki zuten. Horren aurka ez daukat ezer. Behingoz proiektua zertan datzan askok jakiteko aukera izan dute! Oraindik eztabaida eta erabaki prozedura faltan dago, baina ekitaldia ere publikitatezkoa besterik ez zen.

Erakusketa bukatu ondoren badakigu Aranburutik pasa direnak gutxi izan direla, gehienak ziurtasuna nola gainditu jakin nahian. Azkenean erakusketak AHTren aurkako pintadak jasan zituen.

Baina diogunez, propaganda ekitaldi bat da: egunkarietan euren hitzak oihartzuten dituzte. Hauek betikoak dira baina haien artean batzuk adierazgarriak iruditu zitzaizkidan, erreferentzia nabarmenak: progresoa (aurrerapena) eta elkartasuna...

**Ekologistak martxan**

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/martin/>

**Ibarretxe, iruzurrik ez!**

Zergatik jarri zaio Eusko Jaurlaritzari herriari galdetzeko gogoia? Konponduko al dute zerbait Ibarretxek proposatu dituen bi galdetara? Konfiantza izan behar al dugu PNVren iruzur berri honetan?

Burgesiaren ordezkari politikoei ez dituzte galderak egiten herriaren onerako. Ez da zaila pentsatzea burgesiaren trikimailuak bere interes ekonomikoak defendatzeko direla. Munduan burgesiak eta inperialismoak ohikoak dituzte komeni zaizkien galdeketa eta erreferendumak. Hor daude Santa Cruzko oligarkiaren erreferendumak Boliviako iraultza suntsitzeko helburuarekin edo Lisboako Itunarena langile europarrak gehiago zapaltzeko asmoarekin...

**Euskal Herria Sozialista aldzikaria**  
[www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/euskalherriasozialista/](http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/euskalherriasozialista/)

**Euriaren eragina nabaria izan da Tolosako larunbateroko azokan**

**PABLO ALBERDI**

Atzoko euriak eragin bikoitza izan zuen tolosako azokarengan. Alde batetik erosleen kopuruak ez zuen gora egin, eta beste egunetan baino lasaia zebilen jendea. Bestetik, barazkien zerrenda lagunduta azaldu zitzaizgun atzo mahaietan euria eta eguzkia dela eta.

Egun hauetako eguzkiak, asko lagundu du eta ura ugaria denez baratzetan, barazki gehienak gora egin dute. Lekak, azak, Ibarroko piparrak edo eta tomateak adibidez oso puntu onean daude, eta dirudienez, hemendik aurrera aukeran izango ditugu.

Perretxiko zerrenda ere nobedadeekin zetozen atzo; udarako bertako lehenengo onddoak ageri ziren, 10 bat kilo, eta dirudienez datozen egunetan ere hantxe izango ditugu salgai.

**» ATZOKO AZOKA**

**BERDURA PLAZA** Merk. Gares. Landareak

Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20

**BERTAKO PRODUKTUAK**

**Perretxikoak**

Ziza horia	18,00	-
Ziza	12,00	20,00
Onddoa	25,00	30,00

**Fruta**

Marrubia	4,00	6,00
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

**Barazkiak (Kilo)**

Baba	3,00	4,00
Babarrun zuria	8,00	10,00
Ilarra	8,00	12,00
Porruak	1,00	3,00
Kalabaza	1,50	3,00

**PRODUKTU EKOLOGIKOAK**

Azenarioa	2,00	2,50
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Mermelada	3,00	3,60

**G Gutunak**

**65 orduko lan astea eta greba orokorra**

XIX. mendeko lan baldintzak ezarri nahi ditu Europa *demokratikoa*. Gainera, askatasunaren izenean, neurri hauek aurrera egiten badute enpresariak langile bakoitzaren indibidualki negoziatu ahal izango ditu lan harremanak, konbenioak albo batera utziz. Nezioziazio kolektiboaren aurkako eraso zuzena da. Soldaten, pribatizazioen, pentsioen... aurkako erasoen paketea sartzan da.

Azken urteetan okerrera egiten dute langileen bizi baldintzek. Hau ikusten ez duena itsututa dago, mila datu eman genitzake. Baina hala ere, gobernu eta komunikabideek kombentzitu egin nahi gaituzte hau dena langileen hobe beharrez egiten dela esanez. Aspaldiko kontua da hau, aberatsak gizartearen onerako aberasten dira, eraikitzen dituzte kartzelak, torturatzen dute...

Burgesia eta hauen alderdiak gustura daude Europa *demokratikoa* berri on hauekin. Honek ez dauka ezer arrarotik. Langileen haserrea pizten ari dena sindikatu batzuetako zuzendaritzen jarrera da, hitz *gogor*ak bai, baina praktikan ezer egiten ez dutenena. Agintari sindikal batzuk langileak borrokarako prest ez daudela edo gogorik ez dutela hasiko zaizkigu. Munduko bazter ezberdinetara begiratu besterik ez dago hori gezurra dela ikusteko. Pentsatuko ez zituzten langileek greba orokor eta borroka ematen ari dira Grezia, Italia, Europa ekialdean, Egipto, Libano, Venezuela, Bolivia, Txina... baina baita Europa *demokratikoko* herrialde *demokratikoe*tan ere: Danimarka, Belgika, Suitza, Alemania...

Azken garaioetako langile borroka adibideak kontaezina dira. Euskal Herrian ere, otsaileko greba orokorraz gain, paro eta grebekin galdutako lan orduen kopurua

gero eta altuagoa da azkeneko urteekin konparatuta. Langileak prest daude borrokarako ez baitaie beste erremediorik geratzen. Baina prest al daude agintari sindikal erreformistak langileak antolatzeko eta mobilizatzen eta burgesiaren erasoer aurre egiteko?

Agintari sindikal batzuk akordio sozialaren aldeko apustua egingo du beti, hau da, astoaren eta honen gainean doanaren arteko akordioa, astoa beti azpian egotera kondenatuko duen akordio *demokratikoa*. Sindikatuak langileen interesak defendatzeko eta kapitalismoarekin bukatzeko eraiki zirela ahaztu dute, eta ez dituzte ulertzen langileen *kexak*. Noski, tripa beteta duenak nekez ulertzen du gosea duena.

Kapitalistek, posible balute, umeak ere lanean jarriko lituzkete (Munduan zehar egiten jarraitzen dute). Hauengatik balitz, eskubide sindikalak, langabezi sub-

sidioa, baja eskubidea, pentsio publikoak... desagertu egingo lirarteke. Iraganen egoera hau izan zuten Europako herritarrek ere. Nola lortu zituzten langileek eskubide hauek eta euren bizi baldintzak hobetzea? Erantzuna, du-darik dutenentzat, oso garbi dago: borroka.

Agintari sindikal erreformistek beste aldera begiratu dute, ez dute gogorik izango greba orokorra konbokatzen. Baina hauen zoritxarrerako, langileen pazientzia bukatzen joango da. Erreformistek uste baino lehenago greba orokorraren mamuari aurre egin beharko diote. Iraultzaileek berri, langileen errebindikazioak sozialismoaren aldeko borrokaekin lotuz, langileen borroka bultzatuko dute. Bada garaia langileen batasuna bultzatzeko eta burgesiaren erasoer aurka Greba Orokorra antolatzen.

**Ibon Artola. Euskal Herria Sozialista** aldzikariko kidea.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95



## Laffageren erailketa salatzen elkarretaratzeak

**TOLOSALDEA** « Ostiral iluntzean joan den astelehenean indarkeria zantzuakin erailda azaldu zen Nagore Laffageren heriotza salatzen elkarretaratzeak egin zituzten Tolosan eta Leitizan. Bai batean bai bestean 15 lagun inguru elkartu

ziren, Tolosan Trianguloan eta Leitizan Lopeneko iturrian. Tolosan *Emakumeon aurkako indarkeriari aurre hartu* lelopean egin zuten elkarretaratzea, Leitizan, aldiz, *Eraso sexistarik ez!* *Nagore gogoan!* lelopean. Nagore Laffage joan den aste-

lehenean hilik azaldu zen indarkeria zantzuakin eta Nafarroako Gobernuaren ikerketa lerro nagusia genero indarkeriaren bidetik doa. Erailketaren inguruko datu asko ez egon arren, ustezko hiltzailea atxilotu dute. [IT/N.G.](#)

## Amezketak EHPKko finalean hirutik bi kategoriatan lortu du txapela

**Pilota** » Euskal Herriko Herriarteko finala, berriz, Galdakaok irabazi du Baztanen aurka, txapela Bizkaira joan delarik.

**NAIARA GARZIA**

Atzo Amezketan Euskal Herriko Pilota Konfederazioko eta Herri Arteko Txapelketak jokatu zituzten. EHPKko finalak goizean izan ziren, eta Amezketak bi kategoriatan irabazi zuten. Euskal Herriko Herriarteko finalari dagokionez, arratsaldean jokatu zuten eta Galdakaok gailendu zen Baztanen aurka.

EHPKko finalak hiru mailatan jokatu zituzten (benjamin, alebin eta infantiletan) eta bitan amezketarrek irabazi zuten. 5 taldek hartu zuten parte orohar, izan ere, Xalton Zabalak azaldu zuen bezala, Iparraldekoak ez ziren etorri, «ez baitzuten taldea osatzerik izan». Hauetaz gain, bizkaitarrek ere huts egin zuten, uztailean jada oporrak hartzen baitzituzte. «Arabako taldea Amurrio eta Agurainen artean osatu zuten», dio Zabalak. «Nafarroakoa baztandarrek eta Gipuzkoakoa Arrasatek, Andoainek eta Amezketak».



Galdakaok eta Baztanek jokatu zuten atzo Euskal Herriko Herriarteko Txapelketako finala, Larrunarri pilotalekuan. [N.G.](#)

Benjaminetan Baztanek irabazi zuen Andoainen aurka (16-9), alebinetan Amezketak Amurrioren aurka (16-5) eta haur-kategorian ere Amezketak irabazi zuen Agurain aurka (16-8).

Finalak jokatu baino lehen, aurrena, Zabalak azaldu duen bezala, denak denen aurka aritu ziren, 12

tantora. «3 frontoi ezberdinetan jokatu dute: benjaminetik Abaltzisketan, alebinetik Ugarteko frontoian eta infantilek Larrunarri. Abaltzisketan jokatzeko erabakia euria ari zuelako hartu zuten eta Ugarten jokatzeko, eskolako frontoia pintatzen ari direlako eta oraindik amaitu gabe dagoelako.

Denak denen aurka jokatu ondoren, 12:30ean finalak hasi ziren eta 14:15etan amaitu. «Benjaminen arteko norgehiagokak oso borrokatuak izan dira. Besteetan, berriz, Amezketak nahiko erraz irabazi du».

Bestalde, arratsaldean, Euskal Herriko Herriarteko Txapelketa-

ren finala jokatu zuten, hau ere 3 mailatan: kadeteetan, jubeniletan eta nagusietan.

**Euskal Herriko Herriarteko**

Finala Baztan eta Galdakaoren artean jokatu zuten. Bizkaitarrak irabazi zuten txapela, izan ere, hiru kategoriatan irabazi zuten: kadeteek 22-10 irabazi zuten, jubenilek, berriz, 22-15 eta nagusiek 22-20. Azkeneko partida borrokatuena izan zen eta baztandarrek galdu zuten arren, tanteo ona egitea lortu zuten.

**Megafoniarik gabe**

40 lagun inguru bildu ziren atzo Amezketako Larrunarri pilotalekuan, gutxi xamar. «Goizean askoz jende gehiago zen», dio Zabalak. «Lehenengo urtean ekaineko azkeneko astean egin genuen eta asko nabaritu zen, uztailean bizkaitarrek jai hartzen baitute. Autobusean eta guzti etorri ziren».

Eguerdian antolatzaileek bazkaria egin zuten, ze hutsune egon diren aztertzeko. «Hutsune nabarmenena megafoniarena izan da. Udaletxeak megafonia gabe utzi gaitu. Aurkezpenak egiteko eta sariak banatzeko erabiltzeko asmoa geneukan, eta goizean etorri garenean mikrofonoa eta aplikagailua falta ziren». Zabalak azaldu duenez, Udalarekin hitz egiteko asmoa dute. «Urtebetean ez dugu erabili, azkeneko joan den irailean erabili genuen. Gaizki hartu dugu, ez baikeuen espero inondik inora».



## Udaletxearen eraikina behar nagusien artean

**BIDEGOIAN** ■ Markel Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusia eta Rafa Urizarren Foru Aldundiko Landa Garapeneko diputatua izan ziren herenegun Bidegoianen, herria hurbiletik ezagutu, eta dituzten hutsune nagusiak aztertzeko helburuz. Dantzari gazte talde batek *Agurra* egin zien udaletxearen atarian eta ondoren udaletxera igo ziren alkatea eta hainbat zinegotzirekin batera. Udaletxearen eraikina berritzearen beharraz aritu ziren, eta baita uraren saneamendua ere. Halaber, Goiazko pilotalekua zaharberritu behar dela ere jakinarazi zieten Foru Aldundiko ordezkarari eta Ahaldu Nagusiarri. Bukatzeko, herrian zehar ibilaldia egin zuten. **N. URRIBIZ**

**@ Zurea da hitza.** Eskualdeari buruz dituzun berriak sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak. Horretarako *Zurea da hitza* izeneko atalean sartu behar duzu, eta han azaltzen zaizkizun pausoak jarraitu. Zure datuak sar-

tzea ere gomendatzen dugu harremanetan jarri behar dugunera. Kexak, iradokizunak eskerrak... izan ditezke, eta argazkiak sartzeko aukera ere ematen dizu atal honek:

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

### Donostia aldeko komunikazio enpresa batek ZUZENDARIA behar du

**Eskaintzen da:**

- Etorritzunean aukerak eskaintzen dituen lanpostua.
- Laneko kontratua.
- Soldata finkoa.

**Eskatzen da:**

- Kazetaritza edota euskal filologia ikasitakoa izatea.
- Euskaraz zuzen idazteko eta testuak zuzentzeko gai izatea.
- Itzera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

**Kontuan hartuko da:**

- Kazetaritzan eskarmentua izatea.
- Donostiara edo ingurukoak izatea.
- Quark Xpress programa menderatzea.

Curriculum Vitae xehatua bidali abuztuaren 10erako. [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net)

Tolosaldeko komunikabide batek  
**Kazetaritzan edota Euskal Filologian lizentziatuak**  
edo ikasleak behar ditu  
**lan poltsa osatzeko.**

Interesatuak deitu **661 67 88 17** telefono zenbakira



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**ekar**

Testuliburu eta material osagarrien aditua

Orain ikasleak ere eskatu  
ditezke. 2008ko Uztailak  
[www.elkar.com](http://www.elkar.com)

ARRASATE • BAYONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • HERNANI • IRUN • IZURBA • TOLOSA



## Altxorraren bila ibili dira piratak

**VILLABONA** ● Asteari amaiera emateko modu berezia izan dute Villabonako udaleku irekietako haurtxoek. Hiru astetan zehar hainbat ekintza burutzen ari dira 4 eta 9 urte bitarteko umetxoak. Joan den ostiralean, San Fermin Eguna ospatu zuten eta herenegun berriz, pirataz jantzita, altxorraren bila ibili ziren herri guztian barrena. Baina udalekuak azken txanapara iristen ari dira, eta datorren astean amaituko dituzte, hilaren 18an, Azpeitiko igerilekuetara egingo duten txangoarekin. **ESTI EZEIZA**

## Laburrak

### AHTren inguruko bilera izango da bihar Tolosan

**GIZARTEA** ● AHT Gelditu! Elkarlanak deituta eskualde mailako bilera egingo dute bihar. Batzarra 19:30ean hasiko da eta Tolosako Kultur Etxean izango da. Bertan jorrratuko diren gaiak ondorengoak izango dira: alde batetik, orain arte emandako pausoen inguruko hausnarketa egingo dute eta bestetik, aurrera begirako lan lidoa zehaztu.

### Egiaztatze azterketa egin dutenen emaitzak ikusgai

**TOLOSA** ● Aitzol Udal Euskaltegian 1, 2 eta 3. mailako egiaztatze azterketa egin duten ikasleen emaitzak, Euskaltegiko iragarki taulan jarrita daude. Hala ere, orain, eraikina goizetan bakarrik dago irekita: 08:00etatik 14:00etara.

### Festetan Larraizko autobus geltokia bakarrik izango da

**ALEGIA** ● Festak diren bitartean autobus geltoki bakarra Larraitz auzokoa izango da, kaleak libre behar baitituzte. Beraz, hilaren 15eko arratsaldetik hilaren 20a bitartean autobus geltoki bakarra izango da.

## Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzarar autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

# Beotibar pilotalekua 150 dardo jokalariren topaleku bihurtuta

**Tolosa** ● Euskal Herriko Lehen Dardo Txapelketa dago jokoan; gaur goizean jokatuko dira finalak eta arratsaldean, Kopa.

#### ESTI EZEIZA

Euskal Herriko Lehendabiziko Dardo Txapelketa ari da jokatzeko asteburu honetan Tolosako Beotibar Frontoian. Bertan, kirol honen inguruko 150 afizionatuk hartu dute parte. Herenegun hasi ziren norgehiagokak, eta gaur goizean jokatuko dira finalak. Arratsaldean berriz, 16:00etatik aurrera, Euskal Kopa jokatu da. Denera, lau modalitatetan eta lau mailatan aritu dira jokalariek. Alde batetik, bana-ka, bestetik taldeka, eta binakakotan berriz, bi joku ezberdinetan. Lehen, bigarren, hirugarren eta emakumeen maila daude. 150 jokalarietatik 18 dira neskak.

Txapelketa honen antolaketan laguntzaile izan dira, Tolosako Udala, Turre elkarte eta Kursaal makinak. Horrelako ekimen bat antolatzen den lehen aldia da Euskal Herrian. Izan ere, urtean zehar hainbat dardo txapelketa izaten dira, baina hauek makinaren enpresen antolatzen dituzte. Horrela,



Beotibar frontoian 150 lagun inguru ari dira lehiatzen asteburu honetan zehar, dardo txapelketan. **ESTI EZEIZA**

parte-hartzaileek, marka horren sustatzailearekin jarri behar du harremanetan, lehiari parte hartzeko. Tolosan berriz, edonork hartu ahal izan du parte, momentuan izena emanda. Bestalde, sariak dagokionean, dirua ematen diete normalean, baina egun hauetan jokatzeko ari denean, garaikurrak irabaziko dituzte.

Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabatik etorri dira parte-hartzaileak. Tarteen eskualdekoak ere ba-



Pultsu ona izatea beharrezkoa da dardoetan ongi jokatzeko. **ESTI EZEIZA**

dira, horien artean, billabonatarak, zizurkildarrak eta ibarrarrak. Gainera, herenegungo saioan, bi kotekakoan, Zizurkilgo bi lagun izan ziren garailak.

Aipatu bezala, Tolosako txapelketan edonork hartu zezakeen parte, eta adin mugarik ere ez ze-

goen. 15 urtetatik hasi eta 60ra bitartekoak lehiatu dira. Kirol honetan aritzeko, sekretu handirik ez dagoela diote jokalariek, pultsu ona izatea, eta eguneroko entrenatzea. Horregatik, askok eta askok, etxean dituzte dardoetan jokatzeko makinak.

## Iragarki laburrak

#### LANA

■ **Turismo.** Turismo lanetan esperientziadun bi langile behar ditugu. Frantsesa jakitea baloratuko da. Interesatuak [tour@tolosaldea.net](mailto:tour@tolosaldea.net) helbidera bidali mezua edo 943 69 74 13ra deitu.

#### SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai. Tolosa-

ko Alde Zaharrean. Merkea, obra egin behar da. Interesatuak deitu 657 23 00 11era edo 634 91 94 82 telefono zenbakira.

#### BESTEAK

■ **Txakurkumeak.** Txakurkumeak oparitzen dira, bi hilabetekoak. Deitu 645 70 68 21 telefono zenbakira.

Ziurtagiriaren elkartek 80 kideri banatu die Bai Euskarari ziurtagiria Tolosaldean. Hauek arlo ezberdinetan egiten dute lan, batzuk, saltokiak dira, besteak, enpresak... Horietatik, 33k bidean mailagatik jaso dute, beste 37k, zerbitzua euskaraz eskaintzeagatik eta azkenik, 10ek, zerbitzua eta lana euskaraz egiten dutelako.

## «Euskara tresna erabilgarria da, eta zaindu beharrekoa, bestela galduz joango da»

**JOSU OTAEGI** » Klisk argazki dendaren jabea

**Euskara** » Bai Euskarari ziurtagiria jaso du Klisk argazki dendak euskararen alde egindako lanagatik; Bidean mailan lortu du.

### ESTI EZEIZA

Klisk argazki dendako jabea da Josu Otaegi (1961, Tolosa). Ziurtagiria hasi zenetik, urtero jasotzen du hau. Oraingoan ere Bidean mailan jaso du.

**Nondik lortu zenuen lehendabiziko aldiz ziurtagiria?**

Kontseilua ekimen honekin hasi zirenean, arduradunetako batzuk dendara etorri ziren, eta zenbait galdera egin zizkidaten. Honela, hor erantzundakoaren arabera, ziurtagiria jaso nuen.

**Zeintzuk izan ziren egindako galderek?**

Urtero egiten dizkidate galdera horiek. Txartelak nola jartzen ditudan, iragarkiak zein hizkuntzatan dauzkadan... galdetzen didate.



ESTI EZEIZA

**Konpromezu bereziren bat hartu behar izan al duzu ziurtagiria eskuratzeko?**

Denborarekin gauzak aldatzen joaten zara, euskalduntzen. Esaterako, orain erantzungailua gazte-leraz daukat, eta aldatzeko asmoa dut. Gainerakoan, kontu-agiriak, poltsak... aspalditik egiten nituen euskaraz. Duela urte batzuk, Udako euskal zerbitzuetatik zenbait

neurri jarri zituzten, fakturretan eta, euskararen erabilera sustatzeko. Hori zela eta, euskaraz egiten hasi ginen.

**Bai Euskarari ziurtagiria jasotzeko, aldaketarik egin al zenuen?**

Ez, denda ireki genuenetik gauzak horrela egiten ditugu. Niretzat ez zuen aldaketarik suposatu. Hala ere, iragarkie dagokionean, laborategien arabera izaten da. Ba-

tzuek euskaraz bidaltzen dute, baina beste batzuek ez.

**Bezeroek eskertzen edo baloratzen al dute, zuk lana euskaraz egitearena?**

Bai, nik baietz esango nuke, batez ere euskalzaleak direnek.

**Eta zuk, balioa ematen al diozu horri?**

Nik bai, dena den, niri arrunta egiten zait. Nahiz eta batzuetan gazte-leraz ere hitz batzuk erabili.

**Horrelako ekimenak beharrezkoak direla uste al duzu?**

Bai, gainera ikusita egun, alderdi politiko batzuk euskararen aurka doazela, beharrezkotzat jotzen ditut horrelako ekimenak. Euskara tresna erabilgarria da, eta erabili behar dela, horregatik, zaindu beharra daukagu, bestela, pixkanaka galduz joango da.

**Eskualdean, orohar, euskara asko erabiltzen dela esango al zenuke?**

Nik uste dut baietz. Esaterako, harri-garria egiten zait, atzerriko Hego Ameriketako haurrak etortzen direla, eta euskaraz hitz egiten didatela. Izugarriko poza

ematen dit horrek. Bertakotzeko bide bat bezala ikusten dute euskara, eta garrantzia ematen diote. Dena den, beste alde batetik, esan beharra dago argazkilariegi gazte-leraz zuzentzen zaizkigula bezeroak. Ez dakit zergatik gertatzen den hau. Baina jende asko, dendara

**Euskaratzearen lanean, hurrengo pausoa erantzungailua euskaraz jartzearena izango da**

sartzen denean gazte-leraz hasten zait hitz egiten, eta nik euskaraz erantzuten diodanean, orduan hasten zait bera ere euskaraz.

**Ziurtagiria atean itsatsita izateak zer baitetan aldatu al du jendearen jarrera?**

Egia esan, horrenbeste eranskailu daukat atean, nik uste ez dutela ikusi ere egiten.

**Aurrera begira, ziurtagiriarekin jarraitzeko asmoa al duzu?**

Bai noski, gainera, niri ez dit lanik suposatzen, berez egiten dudana lanagatik jaso dut.

**Eta euskaratzearen lanean, beste pausoren bat emateko asmorik bai?**

Lehen aipatu bezala, erantzungailua aldatu beharko dut, eta behin-goz, euskaraz jarri. Beti atzeratzen ari bainaiz, eta egin beharra daukat.

## «Gure helburua lan guztia euskaraz egitea da, baina hori ezinezkoa dela esango nuke»

**LEIRE USANDIZAGA** » Lizarribar zapata dendako nagusia

**Ekonomia** » Zerbitzua euskaraz eskaintzen dute Tolosako Lizarribar zapata dendakoek, hori dela eta, ziurtagiria euskaraz dute.

### E. EZEIZA

Tolosako Lizarribar zapata dendakoek Kontseiluaren ekimenarekin bat eginez, Bai Euskarari ziurtagiriaren eranskailua atean dute itsatsita. Bertako nagusia da Leire Usandizaga (1969, Tolosa) eta ziurtagiriaren garrantziaren inguruan mintzatu da, besteak beste, tolosarra.

**Ziurtagiria ematen dizueten lehen aldia al da?**

Kontseilua eskualdean banatzen hasi zenetik daukagu. Uste dut, lau urte igaro direla ordutik, eta urtero ematen digute.

**Nolatan eman zizuen lehendabiziko hartan?**

Neska bat etorri zitzaigun hona, eta zenbait galdera egin zizkigun.

Hauek erantzun ondoren, eta zenbait aldaketa eginda, azkenean ziurtagiria jaso genuen, eta hordutik, urtero ematen digute. Zerbitzua euskaraz maila daukagu, hau da, erdiko.

**Konpromezu berezirik hartu behar izan al zenuen hau lortzeko?**

Bai, zenbait aldaketa egiteko eskatu zizkiguten. Esaterako, kaxetako etiketak euskaraz jarri behar izan genituen, telefonoaren erantzungailua ere euskaratu... Honez gain, zenbait aholku ere eman zizkiguten.

**Hemendik aurrera ere aldaketak egiteko asmoa al duzue?**

Gure helburua dena euskaraz egin ahal izatea da, baina ezinezkoa dela esango nuke. Izan ere, hornitzaileek beste hizkuntza batzuetan egiten dute, eta hauek ekartzen dituzten gauzak ez daude euskaraz.

**Ziurtagiriarena bezalako ekimenak beharrezkoak direla uste al duzu?**

Ez dakit beharrezkoak diren hala



Lizarribar dendako langileak; erdian Leire Usandizaga. ESTI EZEIZA

ez, baina lagundu egiten dutela argi dago.

**Tolosan euskara asko erabiltzen dela uste al duzu?**

Ez dakit zeintzuk izango diren datu zehatzak, baina gehiengoak euskaraz hitz egiten duela esango nuke. Hala ere, nabarmentzekoa

da, larunbatetan gehiago egiten dela euskaraz. Inguruko herrietako jendea hurbiltzen da azoka dela eta, eta hauek euskaraz egiten dute.

**Tolosako merkataria dendetan, euskaraz jakitea beharrezkoa al da?**

Nik uste dut baietz. Tolosako dendatan batean aritzeko beharrezkoa da euskaraz jakitea, bezeroaren gehiengo euskalduna baita.

**Tolosako edozein dendatan aritzeko euskaraz hitz egiten jakitea beharrezkoa da**

**Ziurtagiria lortu duzenetik, aldaketarik somatu al duzue eroleengan?**

Asko ohartu dira badaukagula. Agian ez eranskailua ikusi dutelako, baina bai, ziurtagiriaren banaketa ekitaldietan eta ikusi gaituztelako.

**Euskaraz egiteagatik, jendea errazago hurbiltzen dela esango al zenuke?**

Agian bai. Esaterako, Donostitik zenbait bezero etortzen zaizkigu, eta hauek esaten digute, hona, Tolosara etortzen direla erosteketaz gertara, bertako euskal giroa gustatzen zaielako. Beraz, izan daiteke hori ere, erakartzeko bidea.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Asteasu.** Santamaria jaien baitan, VIII. Santamaria Igoera 10:30ean (izen-ematea, bi ordu aurretik) eta 17:00etan Euskadiko Segua Txapelketako proba.

### Erljioa

■ **Igaratza.** Meza izango da mendizale eta artzainentzat Igaratzako ermitan 12:00etan.

### Kirola

■ **Txarama.** Piraguismo ikastaroak antolatuta ditu Kaxkardi Kultur Elkarteak Txaraman. Izen-ematea 636 638635 edota 677 488910 telefonoetan.

### Deialdiak

■ **Villabona.** Arabako bazterrean, Aialatarren lurretan irteera antolatuta du Larramendi Bazkunak hila-ren 19 eta 20rako. Izen-ematea, 943 696450 telefonoan (losu) edo txangoak@topagunea.com helbidera idatzita.  
■ **Tolosa.** Tolargik eta Tolosagasa 2009 urteko Tolosako egutegia osatzeko argazki lehiaketa jarri dute abian Tolosa eta bere jaiak gaiaz. Izen-ematea Tolargiren edota Tolosagasaren bulegoetan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

#### Bihar

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



## Igarondo elkarteak banatu ditu sariak

**TOLOSA** ● Ekainean zehar, Igarondo Merkatarien Elkarteak dendariak euren bezeroen artean, erosketak egiten zituaztenean, txartelak banatu zituzten, 600 euroko erosketaxeke baten eta 300 euroko bi erosketaxekearen zozketan parte hartu ahal izateko. Hala, jasotako txartel hauen artean egindako zozketan hiru pertsona hauek suertatu dira irabazleak: 600 euroko erosketaxeke Tolosako Andrea Etxebestek (goian) irabazi du, Mikel Izaguirre lleapaindegian bete zuelarik bere txartela. 300 euroko erosketaxekeak, berriz, Tolosako Amaia Garcia de Iturrospek (behean, ezkerrean) eta Unai Arrietak (behean, eskuinean) irabazi zituzte, Ezeiza Gozotegian eta Shanti Kirolak-en, hurrenez hurren, egin zituzten erosketengatik eman zizkieten txartelei esker. Elkarteak dendetan erabili ahal izango dute irabazitakoa. HITZA



## A Agurrak



### Urte askoan!

**Ainhoa Gabirondo.**  
Zorionak etxekoena eta bereziki Aitorren partetik.



### Zorionak biharko partez!

**Jokin (Amezketza).** Nahiz eta 3 urte eduki hemen oraingoan beste numero bat erantsi behar ezta? Villabonatik.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak